



**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN
BEHINEKO IDAZKARIAK.**

**DON IÑAKI GALDOS LANDA,
SECRETARIO ACCTAL., DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.**

HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Bi mila eta zazpiko uztailaren hamaikan Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día once de julio de dos mil siete, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta zazpiko uztailaren hamaikan, arratsaldeko zazpitan, ezohizko bilerara, Udalbatzarraren Osoko Udala bildu da, lehenengo deialdian, Alfredo Etxeberria Murua Alkate-Lehendakariaren lehendakaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Jon Zubiaurre Urbietta jauna, Manuel Astray Portos jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Ricardo Garate Zubiaurre jauna, Eloisa Zubiaurre Ansola andrea, Alberto Iriondo Elustondo jauna, Jaime Ovidio Campello Teijido jauna, Fernando Suarez Varela jauna, Miguel Fernandez Moreno jauna, M^a Jose Otaño Martinez de Arenaza andrea, Nekane Ortuoste Arana andrea, Iñigo Cearsolo Aramberri jauna, Unai Zulaica Beristain jauna, Izaskun Soraluze Lizundia eta Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día once de julio de dos mil siete, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión extraordinaria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde-Presidente Don Alfredo Etxeberria Murua y a la que asisten los Corporativos: Don Jon Zubiaurre Urbietta, Don Manuel Astray Portos, Doña Bittori Zabala Fernández, Don Ricardo Garate Zubiaurre, Doña Eloisa Zubiaurre Ansola, Don Alberto Iriondo Elustondo, Don Jaime Ovidio Campello Teijido, Don Fernando Suárez Varela, Don Miguel Fernández Moreno, Doña M^a José Otaño Martínez de Arenaza, Doña Nekane Ortuoste Arana, Don Iñigo Cearsolo Aramberri, Don Unai Zulaica Beristain, Doña Izaskun Soraluze Lizundia y Don Francisco Javier Nuñez Álvarez.

Ez da bertaratu: Jon Uriguen Ansola jauna.

No asiste: Don Jon Uriguen Ansola.

Iñaki Galdos Landak, behin behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

Lehendakari jaunaren aginduz bilera hasi eta honako gai hauetaz hitz egin da.

De orden del Sr. Presidente, se abre la sesión y se procede a tratar.



**LEHENENGOA.- BI MILA ETA
ZAZPIKO EKAINAREN
HAMASEIAN EGIN ZEN BILERARI
DAGOKION AKTAREN**

ONARPENA.- Aho batez onartu da, 2007ko ekainaren 16an, Udalbatza osatzeko egin zen bilerari dagokion akta.

PPko zinegotziak, Nuñez jaunak, hitza hartu du, zera adierazteko: mahaian hiru pertsona daudela Udalbatza honetakoak ez direnak

**BIGARRENA.- BATZORDE
INFORMATIBOEN ERAKETA ETA
OSAKETARI DAGOKION
PROPOSAMENA.-**

Idazkari jaunak ondorengo proposamena irakurri du, Batzorde Informatzaileak sortzeko eta eratzeko:

“Toki Erakundeen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubideari buruzko Araudia onartzen duen Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 124 artikuluan, ezarritakoaren arabera, Batzorde Informatiboen zenbakia eta izena, Alkateak eginiko proposamenaren bidez, Plenoan onartuko da. Horiek horrela, honako Batzorde Informatibo hauek eratzea proposatzen da:

1.- Kontu, Hazienda eta Ekonomia Batzorde Berezia.

- Batzordeburua:

**PRIMERO.- APROBACIÓN DEL
ACTA CORRESPONDIENTE A LA
SESIÓN CELEBRADA EL DÍA
DIECISÉIS DE JUNIO DOS MIL
SIETE.-**

Es aprobada por unanimidad el acta correspondiente a la sesión constitutiva de la Corporación celebrada el 16 de junio de 2007.

Interviene el Corporativo del PP, Sr. Núñez, para hacer constar en acta que existen en la mesa tres personas que no pertenecen a la Corporación.

**SEGUNDO.- PROPUESTA EN
RELACIÓN A LA CREACIÓN Y
COMPOSICIÓN DE LAS
COMISIONES INFORMATIVAS.-**

Por parte del Sr. Secretario se da lectura a la siguiente propuesta en relación a la creación y composición de las Comisiones Informativas.

“Resultando que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 124 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el número y denominación de Comisiones informativas se decidirá mediante acuerdo adoptado por el Pleno a propuesta del Alcalde, por la presente se propone aprobar la creación de las siguientes Comisiones Informativas:

1.- Comisión Especial de Cuentas, Hacienda y Economía.

- Presidente:



Bittori Zabala Fernández andrea.

D^a. Bittori Zabala Fernández.

- Batzordekideak:

- Vocales:

Jon Zubiaurre Urbietta jauna.
Ricardo Garate Zubiaurre jauna.
Manuel Astray Portos jauna.
Jon Uriguen Ansola jauna.
Nekane Ortuoste Arana andrea.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
Fernando Suarez Varela jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Unai Zulaica Beristain jauna..

D. Jon Zubiaurre Urbietta.
D. Ricardo Garate Zubiaurre.
D. Manuel Astray Portos.
D. Jon Uriguen Ansola.
D^a Nekane Ortuoste Arana.
D. Jaime Ovidio Campello Tejjido.

D. Fernando Suarez Varela.
D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D. Unai Zulaica Beristain.

2.- *Barne eta Pertsonal Batzordea.*

2.- *Comisión de Interior y Personal.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Manuel Astray Portos jauna.

D. Manuel Astray Portos.

- Batzordekideak:

- Vocales:

Eloisa Zubiaurre Ansola andrea.
Jon Zubiaurre Urbietta jauna.
Nekane Ortuoste Arana andrea.
Iñigo Cearsolo Aramberri jauna.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
Miguel Fernández Moreno jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Unai Zulaica Beristain jauna.

D^a Eloisa Zubiaurre Ansola.
D. Jon Zubiaurre Urbietta.
D. Nekane Ortuoste Arana.
D. Iñigo Cearsolo Aramberri.
D. Jaime Ovidio Campello Tejjido.

D. Miguel Fernández Moreno.
D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D. Unai Zulaica Beristain.

3.- *Gizarte Ongizate eta Osasun Batzordea.*

3.- *Comisión de Prestaciones Sociales y Sanidad.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Eloisa Zubiaurre Ansola andrea.

D^a. Eloisa Zubiaurre Ansola.

- Batzordekideak:

- Vocales:



Manuel Astray Portos jauna.
Bittori Zabala Fernandez andrea.
Alberto Iriondo Elustondo jauna.
Jon Uriguen Ansola jauna.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
M^a Jose Otaño Martinez de Arenaza andrea.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Izaskun Soraluze Lizundia Andrea

D. Manuel Astray Portos.
D^a. Bittori Zabala Fernández.
D. Alberto Iriondo Elustondo.
D^a. Jon Uriguen Ansola.
D. Jaime Ovidio Cambello Tejjido.
D^a. M^a Jose Otaño Martínez de Arenaza.
D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D^a. Izaskun Soraluze Lizundia.

4.- *Hirigintza, Ur, Argi, Obra eta Ingurumen Batzordea.*

4.- *Comisión de Urbanismo, Agua, Luz, Obras y Medio Ambiente.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Jon Zubiaurre Urbietta jauna.

D. Jon Zubiaurre Urbietta.

- Batzordekideak:

- Vocales:

Bittori Zabala Fernández andrea.
Ricardo Garate Zubiaurre jauna.
Manuel Astray Portos jauna.
Nekane Ortuoste Arana andrea.
Iñigo Cearsolo Aramberri jauna.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
Fernando Suarez Varela jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Unai Zulaica Beristain jauna.

D^a. Bittori Zabala Fernández.
D. Ricardo Garate Zubiaurre.
D. Manuel Astray Portos.
D^a. Nekane Ortuoste Arana.
D. Iñigo Cearsolo Aramberri.
D. Jaime Ovidio Campello Tejjido.
D. Fernando Suarez Varela
D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D. Unai Zulaica Beristain..

5.- *Kultura, Irakaskuntza eta Jai Batzordea.*

5.- *Comisión de Cultura, Enseñanza y Festejos.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Iñigo Cearsolo Aramberri jauna.

D. Iñigo Cearsolo Aramberri.

- Batzordekideak:

- Vocales:



Jon Uriguen Ansola jauna.
Eloisa Zubiaurre Ansola andrea.
Alberto Iriondo Elustondo jauna.
Ricardo Garate Zubiaurre jauna.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
Miguel Fernandez Moreno jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Izaskun Soraluze Lizundia andrea.

D. Jon Uriguen Ansola.
D^a. Eloisa Zubiaurre Ansola.
D. Alberto Iriondo Elustondo.
D. Ricardo Garate Zubiaurre.
D. Jaime Ovidio Campello Tejjido.

D. Miguel Fernández Moreno.
D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D^a Izaskun Soraluze Lizundia.

6.- *Euskara Batzordea.*

6.- *Comisión de Euskera.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Jon Uriguen Ansola jauna.

D. Jon Uriguen Ansola.

- Batzordekideak:

- Vocales:

Nekane Ortuoste Arana andrea.
Alberto Iriondo Elustondo jauna.
Bittori Zabala Fernandez Andrea.
Jon Zubiaurre Urbietta jauna.
Jaime Ovidio Campello Tejjido jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
Izaskun Soraluze Lizundia andrea.

D^a Nekane Ortuoste Arana.
D. Alberto Iriondo Elustondo.
D^a. Bittori Zabala Fernández.
D. Jon Zubiaurre Urbietta.
D. Jaime Ovidio Campello Tejjido.

D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
D^a. Izaskun Soraluze Iriondo.

7.- *Gaztedia Batzordea.*

7.- *Comisión de Juventud.*

- Batzordeburua:

- Presidente:

Alberto Iriondo Elustondo jauna.

D. Alberto Iriondo Elustondo.

- Batzordekideak:

- Vocales:

Ricardo Garate Zubiaurre jauna.
Eloisa Zubiaurre Fernandez Andrea.
Jon Zubiaurre Urbietta jauna.
Jon Uriguen Ansola.
Nekane Ortuoste Arana andrea.

D. Ricardo Garate Zubiaurre.
D^a. Eloisa Zubiaurre Fernández.

D. Jon Zubiaurre Urbietta.
D. Jon Uriguen Ansola.
D^a. Nekane Ortuoste Arana.



Fernando Suarez Varela jauna.
Miguel Fernandez Moreno jauna.
Francisco Javier Nuñez Alvarez
jauna.
Unai Zulaica Beristain jauna.”

D. Fernando Suarez Varela
D. Miguel Fernandez Moreno.
D. Francisco Javier Nuñez
Alvarez.
D. Unai Zulaica Beristain.”

Bozketa egin ondoren, proposamena onartu egin da, ondorengo emaitzarekin:

Sometida a votación, la propuesta es aprobada con el siguiente resultado:

-Aldeko botoak: 14 (EAJ, EA, PSE-EE, PP)
-Abstentzioak: 2 (EB-B-Aralar)

- Votos a favor: 14 (PNV, EA, PSE- EE, PP)
- Abstenciones: 2 (EB-B-Aralar)

HIRUGARRENA.- ORGANU KOLEGIATUETAN

KORPORAZIOKO ORDEZKARIAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA.-

Idazkari jaunak honako proposamen hau irakurri du, organo kolegiatuetan korporazioko ordezkariak izendatzeko:

TERCERO.- PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO DE

REPRESENTANTES DE LA CORPORACION EN ORGANOS

COLEGIADOS.- Por parte del Sr. Secretario se da lectura a la siguiente propuesta de nombramiento de representantes de la Corporación en Órganos

“Jarraian aipatuko diren Organu Kolegiatu bakoitza arautzen duten araudi zehatzen arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurari ondorengo udal ordezkariak izendatu ditzala proposatzen zaio:

“De conformidad con las normas particulares que regulan los respectivos órganos colegiados que se citarán, se propone que por parte del Pleno de la Corporación, se designen a los siguientes representantes municipales:

DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

- Alfredo Etxeberria Murua jauna.

DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

- D. Alfredo Etxeberria Murua.

GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOA

- Ion Zubiaurre Urbietta jauna.

CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA

- D. Ion Zubiaurre Urbietta.

DEBEGESA

- Alfredo Etxeberria Murua jauna.

DEBEGESA

- D. Alfredo Etxeberria Murua.



MAKINA HERRAMIENTA
INSTITUTUA ETA GESTIO ESKOLA

- Alfredo Etxeberria Murua jauna.

EUDEL

- Alfredo Etxeberria Murua jauna.

DEBABARRENA
MANKOMUNITATEA ETA BADESA

Mankomunitatearen Batzar Orokorrerako honakozinegotzi hauek izendatzea:

- Jon Zubiaurre Urbietta jauna.

- Manuel Astray Portos jauna.

- Nekane Ortuoste Arana andrea.

Debabarrena Mankomunitatearen gainontzeko Organoen ordezkari Jon Zubiaurre Urbietta jauna izendatzea.

Badesaren gainontzeko Organoen ordezkari Manuel Astray Portos jauna izendatzea.

DEBABE MANKOMUNITATEA

Debabe Udal Euskaltegiko Mankomunitatearen estatutuen arabera, Elgoibarko Udaleko Alkateari edo honek eskuordetutako zinegotziari dagokio Mankomunitateko lehendakari izatea, eta zinegotzien artetik izendatutako bati Mankomunitateko mahaikide izatea. Horiek horrela honako hau onartzeko proposamena egiten da:

INSTITUTO DE MAQUINA
HERRAMIENTA Y ESCUELA DE
GESTION

- D. Alfredo Etxeberria Murua.

EUDEL

- D. Alfredo Etxeberria Murua.

MANCOMUNIDAD DE
DEBABARRENA Y BADESA

Designar representantes para la Junta General de la Mancomunidad a los siguientes Corporativos:

- D. Jon Zubiarre Urbietta.

- D. Manuel Astray Portos.

- D^a. Nekane Ortuoste Arana.

Designar como representante para los demás órganos de la Mancomunidad Debabarrena a D. Jon Zubiaurre Urbietta.

Designar como representante para los demás órganos de Badesa a D. Manuel Astray Portos.

MANCOMUNIDAD DEBABE

Resultando que de conformidad con los estatutos de la Mancomunidad Debabe Udal Euskaltegia corresponde al Ayuntamiento de Elgoibar ostentar su presidencia por el Sr. Alcalde o Corporativo en quien delegue y un vocal designado entre sus Corporativos, se propone la aprobación de lo siguiente:



LEHENENGOA.- Debabe Mankomunitateko Lehendakari kargua Jon Uriguen Ansola zinegotzi jaunaren esku uztea, eta karguari dagozkion eskumen guztiak ematea, baita besteei eragingo dieten egintzak emateko ere.

BIGARRENA.- Alberto Iriondo Elustondo Elgoibarko Udaleko zinegotzi jauna Debabe Mankomunitateko mahaikide izendatzea.

DEBEMEN MENDIKO
NEKAZARITZA ELKARTEA

- Alfredo Etxeberria Murua jauna.

UDALEKO ESKOLA-KONTSEILUA

- Miren Nekane Ortuoste Arana andrea

Campello jaunak, PSE-EEko zinegotziak parte hartu du, bere botua proposamenaren aurkako izango dela azaltzeko; izan ere, proposatutakoak ez du elgoibartarrek, azken hauteskundeetan, bozkatu dutena islatzen; beste bide batzuetatik hauteskunde horiek desitxuratu egin dira-eta.

Bere ustez, hasiera txarra izan da; argi geratzen baita legealdi honetan, aurreko bietan bezala, zer gerta daitekeen. Izan ere, aurreko bi legealdietan gauzak inposatu egin ziren.

Jarrera hau aldatzea espero du; bestela, legegintzaldi hau nahiko zaila izango dela iruditzen zaio.

PRIMERO.- Delegar en el Concejal D. Jon Uriguen Ansola la Presidencia de la Mancomunidad Debabe con plenas facultades incluidas la de emitir actos que afecten a terceros.

SEGUNDO.- Designar al Concejal D. Alberto Iriondo Elustondo vocal de la Mancomunidad Debabe en representación del Ayuntamiento de Elgoibar.

ASOCIACION DE AGRICULTURA
DE MONTAÑA DEBEMEN

- D. Alfredo Etxeberria Murua.

CONSEJO ESCOLAR MUNICIPAL

- D^a. Miren Nekane Ortuoste Arana”

Interviene el Corporativo Sr. Campello, del PSE-EE para explicar su voto contrario a la propuesta, debido a que lo que se plantea no representa lo que han votado los elgoibarreses en las últimas elecciones ya que por otra vías, se han desvirtuado las mismas.

Opina que se trata de un mal inicio, porque indica lo que puede suponer esta legislatura, tal y como lo fueron las dos anteriores, basadas en la utilización del rodillo.

Espera que se cambie esta actitud, ya que de lo contrario, estima que será una legislatura bastante difícil.



PLENO
07/07/11
ACTA Nº 7

Bukatzeko zera gaineratu du: bere ustez, EAJ alderdia ez dela jabetu azken hauteskundeotako emaitzak zer nolakoak izan diren.

Concluye señalando que tiene la impresión de que el PNV no se ha enterado de los resultados de las últimas elecciones.

Bozketa egin eta gero, proposamena onartu egin da, honako emaitza honekin:

Sometida a votación, la propuesta es aprobada con el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: 9 (EAJ, EA)
- Aurkako botoak: 5 (PSE-EE, PP)
- Abstentzioak: 2 (EB-B-Aralar)

- Votos a favor: 9 (PNV, EA)
- Votos en contra: 5 (PSE- EE, PP).
- Abstenciones: 2 (EB-B-Aralar)

LAUGARRENA.- AUTONOMIADUN ERAKUNDEEN ZUZENDARITZA BATZORDEA OSAKETA.-

Idazkari jaunak honako proposamen hau irakurri du, Autonomiadun Erakundeen Zuzendaritza Batzordea osatzeko

CUARTO.- COMPOSICION DE LA JUNTA RECTORA DE LOS ORGANISMOS AUTONOMOS.-

Por parte del Sr. Secretario se da lectura a la siguiente propuesta en relación a la composición de la Junta Rectora de los Organismos Autónomos:

“Alkate – Lehendakari jaunak, Udaleko Autonomiadun Erakundeen estatutuetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzarraren Osoko Bilkurari honako proposamen hau egiten dio, Zuzendaritza Batzordeak osatzeko:

“Por parte del Sr. Alcalde-Presidente, y de conformidad con lo estipulado en los estatutos de los Organismos Autónomos municipales, se propone al Pleno de la Corporación la siguiente Composición para su Junta Rectora o Directiva:

1.- UDAL KIROL PATRONATUA:

- *Lehendakaria:* Ricardo Garate Zubiaurre jauna.

1.- PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES:

- *Presidente:* D. Ricardo Garate Zubiaurre.

- *Lehendakariordea:* - Ion Zubiaurre Urbietta jauna.

- *Vicepresidente:* - D. Ion Zubiaurre Urbietta.

- *Mahaikideak:*

- *Vocales:*

- Alberto Iriondo Elustondo jauna.

- D. Alberto Iriondo Elustondo.

- Nekane Ortuoste Arana andrea.

- D^a. Nekane Ortuoste Arana.

- Iñigo Cearsolo Aramberri jauna.

- D. Iñigo Cearsolo Aramberri.



- | | |
|---|--------------------------------------|
| - Fernando Suarez Varela jauna. | - D. Fernando Suarez Varela |
| - Miguel Fernandez Moreno jauna. | - D. Miguel Fernández Moreno. |
| - Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna. | - D. Francisco Javier Nuñez Alvarez. |
| - Unai Zulaica Beristain jauna. | - D. Unai Zulaica Beristain. |

2.- *SAN LAZARO ZAHARREN EGOITZA:*

- *Lehendakaria:* Alfredo Etxeberria Murua Alkate jauna.

- *Lehendakariordea:* Eloisa Zubiaurre Ansola andrea.

- Mahaikideak:

- Manuel Astray Portos jauna.
- Alberto Iriondo Elustondo jauna.
- D. Iñigo Cearsolo Aramberri jauna.
- Ovidio Campello Teijido jauna.
- Miguel Fernandez Moreno jauna.
- Francisco Javier Nuñez Alvarez jauna.
- Izaskun Soraluze Lizundia andrea.

2.- *RESIDENCIA DE ANCIANOS SAN LAZARO:*

- *Presidente:* Sra. Alcalde – D. Alfredo Etxeberria Murua.

- *Vicepresidente:* D^a. Eloisa Zubiaurre Ansola.

- Vocales:

- D. Manuel Astray Portos.
- D. Alberto Iriondo Elustondo.
- D. Iñigo Cearsolo Aramberri.
- D. Ovidio Campello Teijido
- D. Miguel Fernández Moreno.
- D. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
- D^a. Izaskun Soraluze Lizundia.

Ezker Batua-Berdeak-Aralar alderdiaren ordezkariak, Zulaica jaunak, zera aipatu du: dagoeneko, batzorde informatzaile iraunkorretan, organo kolegiatuetan, autonomiadun erakundeen zuzendaritza

Toma la palabra el Corporativo de Ezker Batua-Berdeak-Aralar, Sr. Zulaica, para manifestar que llegados a este punto en el que ya conocemos cual es la composición de las comisiones



PLENO
07/07/11
ACTA N° 7

batzordeetan eta horietako ordezkarietan zein zinegotzik parte hartuko duten ikusirik, ezinbestekoa, egiten zaiola alkateak egin duen banaketari buruzko bere kexa adieraztea.

“EAJ alderdiak deituta, EAJ eta EB-B-Aralar alderdiak hainbat bilera egin ditugu, gobernu taldea eratzeko. Hasiera batean, gure alderdiak argi utzi zuen, ez zuela aukera hori kontuan hartzen. Hala ere, izandako jarrera aldaketa ikusirik, itxaropena daukagu legealdi hau desberdina izango ote den. Horregatik, ateak irekita laga ditugu, legealdian barrena, harremanak izateko. Hasierako hura ez zen gobernu taldea eratzeko unea, ez genuelako EAJ taldean uste handirik, eta batez ere, gure irizpideak mantendu nahi ditugulako, ezeri uko egin behar izan gabe; batez ere, herri partaidetzari, aurrekontu partehartzaileei, eta herri-ereduari buruzko gaietan. Bada, hasi baino ez gara egin, eta gure susmoak baieztatu egin dira. Ikus ezazue zer nolako aldeak dauden. Arestian aipatutako erakundeen banaketari buruzko balantzea eginez (baliteke ni ere erratuta egotea), 22 erakundetatik 17 EAJko alderdikideentzat dira, eta %, EAKo alderdikideentzat. Horrek erakusten digu EAJk eta EAK ez duzuela Udala ireki eta guztiokin elkarlanean jarduteko asmorik, eta beti, zerbait asmatzen duzuela dena zuek eskuratzeko. Beste Udal batzuetan, gehiengo absolutuak izan arren, lanerako bideak irekitzen zaizkie oposiziokoei, eta lankidetzaren guneak sortzen dira, trukean ezer eskatu gabe. Egia esan, zuen eredua ez da EB-B-A alderdiak defendatzen

informativas permanentes, los nombramientos en órganos colegiados, la composición de la junta rectora de los organismos autónomos y diferentes delegaciones, no podemos mas que lamentar el reparto que se ha hecho por parte del alcalde.

El PNV y EB-B/A hemos mantenido diferentes reuniones con relación a la invitación por parte del PNV para que formemos equipo de gobierno, desde un principio EB-B/A dejamos claro que no contemplábamos dicha opción, el cambio en la actitud y las formas nos hacen concebir esperanzas de una legislatura diferente por lo que dejamos las puertas abiertas para mantener relaciones durante la legislatura, que no era el momento, pues había desconfianza hacia el PNV y sobre todo por el hecho de que queremos mantener nuestro criterio sin renunciar a nada, sobre todo en relación a participación ciudadana, presupuestos participativos y modelo de pueblo. Pues bien no hemos hecho mas que empezar y nuestras sospechas confirman. Fijaros que diferencias tan grandes tenemos. El reparto de los organismos antes mencionados nos deja un balance (salvo error) que de 22 organismos 17 son para miembros del PNV y 5 para EA, lo que nos confirma que PNV y EA tenéis un sentido de abrir el ayuntamiento y colaborar con todos, que es nula y que siempre buscáis fórmulas para acaparar todo para vosotros, no como en otros ayuntamientos que a pesar de haber mayorías absolutas se abren áreas de trabajo a la oposición y se busca colaboración sin pedir nada a cambio. Desde luego que el modelo que aplicáis no es el que defendemos desde EB-B/A.



duena.

Halaber, gure ustez, ez duzue Elgoibarko herriak nahi duenari buruzko balorazio erreala egin.

Ez al zaizue iruditzen 5.679 botoren artetik 1.657 boto baino lortu ez dituen alderdi batek ahalegina egin beharko lukeela erantzukizunak denon artean banatzeko, kontrola eta boterea ematen duen gutzia lortzeko laguntza bilatu beharrean?

Gure balantzea, benetan, honakoa da: elgoibartarrak ezkertiarak, anitzak eta aurrerakoiak direla, baina Udala betikoek kontrolatzen dutela, eskuindarren eta kontserbadoreen ikuspegitik. EAJ alderdia egoera hau lortzen saiatzen da beti, eta lortu egiten du EAren laguntzarekin. Gure ustez, egora hau sinestezina da. Baina egoera aldatzen saiatuko gara; eta horretarako, hausnarketa egitera gonbidatzen zaituztegu.

Argi utzi nahi dizuegu guztioi, EB-B-A alderdiak erantzukizuneko oposizio konstruktiboa egin nahi duela, eta lan egingo dugula, ideia, programak, freskotasuna eta topaguneak emateko, gobernu taldeak egindako lana kritikatzeari eta kontrolatzeari uko egin gabe, eta batez, ere herritarrei informazioa helarazteari uko egin gabe; herritarra baita gugandik hurbilen dagoen. Desberdintasnen eta ikuspuntu anitzen gainetik, EB-B-A alderdiak atek irekita izango ditu beti, jarduera jakinei edo proiektu berriei buruz guztiekin, eta gauza guztietaz, hitz egiteko; beti ere, jarrera positiboa izanik, eta Elgoibarko

También creemos que no hacéis una valoración real de lo que quiere el pueblo de Elgoibar.

¿No os parece que un partido con 1.657 votos de 5. 679 debería buscar el reparto de responsabilidad entre todos en vez de buscar apoyos para lograr copar todo lo que implica control y poder?

Nuestro balance desde luego es que los elgoibarreses son de izquierdas, plurales y progresistas pero en cambio el ayuntamiento se gestiona por los de siempre con formas de derechas y conservadoras. Una situación que constantemente busca el PNV y lo consigue con el apoyo de EA Sólo podemos calificar de increíble esta situación y al tiempo que intentaremos cambiarla os invitamos a reflexionar.

Queremos dejar claro ante todos, el compromiso de EB-B/A a ejercer una oposición responsable y constructiva, donde trabajaremos para aportar ideas, proyectos, frescura, y puntos de encuentro, sin renunciar por ello ni a criticar y controlar el trabajo del equipo de gobierno ni sobre todo, a trasladar la información al ciudadano, que es del que mas cerca nos sentimos. Por encima de las diferencias y diferentes puntos de vista sobre actuaciones puntuales o nuevos proyectos EB-B/A siempre tendremos las puertas abiertas para hablar con todos y de todo con actitud positiva y trabajando para conseguir lo



herriarentzat onena lortzeko lan eginez.

mejor para Elgoibar.

Bertaratutako ikusleak idatzi bat irakurtzen hasi dira; hori dela-eta, Alkate jaunak itzali egin du mikrofono-sistema.

Por parte del público presente se procede a dar lectura a un escrito, ante lo cual el Sr. Alcalde retira el uso del sistema microfónico.

Alkate jaunak, erantzukizunezko jarrera konstruktiboari buruz egin duen aipamenari erantzunez, zera adierazi dio Zulaica jaunari: bera izan dela batzorde informatzaile bateko erantzukizunari uko egin diona, eta Tokiko Gobernu Batzarrean botua emateko eskubidea duen kide izateari ere uko egin diola.

El Sr. Alcalde, en referencia a la alusión efectuada por el Sr. Zulaica en torno a una actitud responsable y constructiva, le señala que él mismo ha rechazado la posibilidad de asumir la responsabilidad de una comisión informativa así como de ser miembro con voto en la Junta de Gobierno Local.

Nuñez jaunak, PPkoak, jasota utzi nahi du mahaian dauden jaunen jarduna, eta era berean, jardun hori Alkatearen baimenarekin egin dela.

El Sr. Nuñez, del PP, desea hacer constar la intervención de los señores presentes en la mesa y que se ha efectuado con el permiso del Sr. Alcalde.

Alkate jaunak erantzun dio bere borondatearen aurka izan dela.

El Sr. Alcalde responde que ha sido en contra de su voluntad.

Bozketa egin ondoren, proposamena onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Sometida a votación la propuesta es aprobada con este resultado:

-Aldeko botoak: 14 (PNV, EA, PSE-EE, PP)

- Votos a favor: 14 (PNV, EA, PSE-EE, PP)

-Abstentzioak: 2 (EB-B-A)

- Abstenciones: 2 (EB-B-A)

BOSGARRENA.- EUSKAL HERRIKO UDALETXEETAKO HAUTATURIKO KARGUEN ORDAINSARIEI BURUZKOA EUDELEN AKORDIOAREN APLIKAZIOA.-

Idazkari jaunaren aldetik Euskal Herriko Udaletxeetako hautaturiko karguen ordainsariei buruzko Eudelen akordioaren aplikazioari buruzko proposamenari irakurketa ematen zaio, hitzez hitz honako hau

QUINTO.- APLICACIÓN DEL ACUERDO DE EUDEL SOBRE RETRIBUCIÓN DE LOS CARGOS ELECTOS DE LOS AYUNTAMIENTOS DE EUSKADI.-

Por parte del Sr. Secretario se da lectura a la propuesta de aplicación del acuerdo sobre retribución de los cargo electos de los Ayuntamientos de Euskadi, que literalmente indica lo siguiente:



diolarik:

“Kontuan izanik, EUDELen Batzorde Betearazleak proposatuta, alderdi politikoek ordezkariek, 2001eko irailaren 27an EUDELen egoitzan egindako bileran, erabili zuten kargu hautetsiek jaso beharreko diru – kopuruak arautzeko irizpideak onartzea. Irizpide horiek Euskadiko udaletara bidali ziren.

“Resultando que a propuesta de la Comisión Ejecutiva de EUDEL, los representantes de los partidos políticos, en reunión celebrada en la sede de EUDEL el 27 de septiembre de 2001, acordaron aprobar un conjunto de criterios reguladores de las asignaciones económicas a percibir por los cargos electos, que fueron remitidos a los municipios vascos.

Aipaturiko akordioak ezarritakoaren arabera, alderdi politikoek jaso beharreko diru – kopuruak nahiz asistentziagatik kalte – ordainak, bai eta aurrekontu – tarteak ere, KPIren arabera igo behar dira, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera.

El citado acuerdo establece que, tanto las asignaciones económicas a los grupos políticos como las indemnizaciones por asistencias, así como los tramos presupuestarios contemplados, deben incrementarse conforme al I.P.C, a partir de 1 de enero de 2002.

Kontuan izanik aipaturiko irizpideen arabera Udal taldeei ordaindu beharrekoari dagokionean Elgoibarko Udala 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko tartean dagoela.

Considerando que de conformidad con dichos criterios el Ayuntamiento de Elgoibar se encuentra encuadrado en el tramo de 10.000 a 20.000 habitantes a los efectos de las asignaciones a los grupos municipales.

Kontuan izanik Alkatearen eta erabateko arduraldia duten zinegotzien ordainsariei dagokienean, Udal hau Udal aurrekontua edo bateratua 10.858'117 euro baino handiagoa dutenen talderen barnean dagoela.

Considerando que a efectos de retribuciones de Alcaldes y Concejales con dedicación exclusiva, este Ayuntamiento se encuentra en el grupo cuyo presupuesto municipal o consolidado sea superior a 10.858'117 euros.

Kontuan izanik 2007ko ekitaldirako Udal aurrekontuan badela aurrekontuaren izendapena.

Considerando que existe consignación presupuestaria al efecto dentro del presupuesto municipal para el ejercicio 2007.

Hori betez, dagozkion eguneratzeak egin dira eta, ikusiriko, 2007ko urtarrilaren

En cumplimiento de esa previsión, se ha procedido a las actualizaciones



PLENO
07/07/11
ACTA Nº 7

letik aurrera ezarri beharreko irizpideak, Korporazioaren Osokoak ondorengo akordioak onartu ditzan proposamena egiten da:

LEHENEGOA.- Alfredo Etxeberria Murua, Alkate jaunari, erabateko arduraldia izanik, 2007 urterako Eusko Jaurlaritzako Zuzendari bati dagokion ordainsaria eman, urteko 66.411'24 eurotan zehaztuta dagoena.

SEGUNDO.- Erabateko arduraldia duen Jon Zubiaurre Urbietta Lehenengo Alkateorde jaunari, Alkate jaunari dagokion ordainsariari %10a kendutakoa eman, 59.770'12 eurotan zehazturik geldituz, 2007ko uztailaren 12tik aurrera.

HIRUGARRENA.- Ondorengo irizpideen bidez kalkulatu diren eta bere osotasunean Talde politikoei ordainduko zien ordainsaria ezartzea:

- Talde bakoitzeko fixoa: 500'30€/hilean

- Zinegotzi bakoitzeko: 153'92€/hilean.

- Liberatu gabeko zinegotzi bakoitza: 467'46€/hilean.

- Liberatu gabeko zinegotziaren batzorde buru bakoitzari: 81'80€/hilean.

- Udal Gobernu Batzordeko kide bakoitzarengatik 81'80€/hilean.

- Bozemaileen batzordeko kide bakoitzari: 81'80€/hilean.

correspondientes, por lo que, vistos los criterios a aplicar a partir de 1 de enero de 2007, se propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes acuerdos:

PRIMERO.- Asignar al Sr. Alcalde, D. Alfredo Etxeberria Murua, con dedicación exclusiva, una retribución equivalente a la de un Director del Gobierno Vasco, fijada para el año 2007 en 66.411'24 euros anuales.

SEGUNDO.- Asignar al Primer Teniente de Alcalde D. Jon Zubiaurre Urbietta, con dedicación exclusiva, una retribución equivalente a la que corresponde al Sr. Alcalde con una deducción del diez por ciento, quedando fijada en 59.770'12 euros anuales, a partir del 12 de julio de 2007.

TERCERO.- Establecer una asignación económica a los grupos municipales que será abonada en su totalidad a cada grupo político cuyo cálculo se realizará aplicando los siguientes criterios:

- Fijo por grupo: 500'30€/mes

- Por cada concejal: 153'92€/mes.

- Por cada concejal no liberado: 467'46€/mes.

- Por cada Presidencia de Comisión de concejal no liberado: 81'80€/mes.

- Por cada miembro de la Junta de Gobierno Local: 81'80€/mes.

- Por cada miembro de la Junta de portavoces: 81'80€/mes.



- Ordezkaritza bakoitzarengatik: 46'74€/hilean.”

- Por cada delegación: 46'74€/mes.”

Campello jaunak, PSE-EEko zinegotziak hitza hartu du, une honetan Alkatearen eta Lehenengo Alkatearen soldaten gaia aztertu dutelako, talde politikoei eta zinegotzientzako ordainsarien gaiarekin batera. Batez ere, kontuan izanik, Bozera maileen Batzordean zinegotzien ordainketei buruzko gaia aztertu zela, eta ez zela soldaten gaia aipatu ere egin.

Interviene el Sr. Campello, corporativo del PSE-EE para mostrar su sorpresa por el hecho de que en este momento se trate el tema de los salarios del Alcalde y del primer Teniente de Alcalde junto con lo relativo a los abonos a los grupos y los concejales, sobre todo cuando en la Junta de Portavoces se trató lo relativo al abono de corporativos y no se mencionó lo de los salarios.

Horregatik guztiagatik, zera eskatzen du: gai hori mahai gainean utz dadila, eta ordenantzen kasuan gertatzen den bezala, Elgoibarko herriarekin antzekotasuna duten herrietako alkateen soldatei buruzko azterketa bat egin dadila, eta horren arabera, orain aztertzen ari diren bi soldatak finka daitezela.

Por todo ello solicita que este tema se deje en suspenso, y que, al igual que se hace con las ordenanzas, se lleve a cabo un estudio sobre los salarios de los alcaldes de pueblos de similares características a Elgoibar, y que en función de eso se fijen los dos salarios para nuestro caso.

Alkate jaunak, adierazi du, aurreko legealditik hona ez dela inolako aldaketarik izan.

El Sr. Alcalde responde que no ha habido ninguna modificación respecto a la legislación anterior.

Campello jaunak adierazi du badakiela, baina ez dakiela zergatik ez zuten gaia Bozera maileen Batzordean aztertutik, kontuan izanik, aipatu zituztela zinegotziei egin beharreko ordainketak.

El Sr. Campello indica que ya lo sabe, pero desconoce por qué no se trató el tema en Junta de Portavoces, cuando sí se habló de las modificaciones respecto al abono a corporativos.

Alkate jaunak gaineratu du bilera hartan aurreko sistemari egin beharreko aldaketak baino ez zitzaizkiola egin. Eta aldaketak PFEZ delakoaren atxikipenetan bakarrik egin zirela.

El Sr. Alcalde señala que en esa reunión únicamente se trataron las modificaciones a introducir al sistema anterior, y que en este punto se limitaba a las retenciones de IRPF.

Campello jaunak, dioenez, gehiegizkoa iruditzen zaio 4.743 euroko hamalau hilabete kobratzea, horregatik, berriro ere

El Sr. Campello, añade que le parece excesivo el cobro de 4.743€ al mes en catorce mensualidades, por lo que vuelve



PLENO
07/07/11
ACTA Nº 7

proposatu du azterketa konparatibo bat egitea, soldata horiek finkatzeko.

a proponer llevar a cabo un estudio comparativo para fijar dichos salarios.

Halaber, adierazi du, gaia Bozeramaileen Batzordean aztertu izan balitz, han bertan egingo zukeela proposamen hau.

Asimismo, indica que en caso de haber sacado el tema en la Juntas de Portavoces, habría efectuado allí este planteamiento.

Alkateak esan du diru kopuru hauek aurreko legegintzaldiko Udalbatzarrak onartu zituela.

El Sr. Alcalde manifiesta que estas cantidades fueron aprobadas por el Pleno del a anterior legislatura.

Zulaika jaunak, EB-B-Aralar taldekoak, hitza hartu du, gai hau Bozeramaileen Batzordean aztertu ez zelako oso harrিতa dagoela adierazteko.

Toma la palabra el Sr. Zulaika, de EB-B-Aralar, para mostrar su sorpresa por no haber tratado este tema en la Junta de Portavoces.

Era berean, gaineratu du bere talde politikoak ez duela ordezkariarik EUDELen, eta ez daudela behartuta hango irizpideak betetzera. Bere ustez, erabaki hau Bozeramaileen Batzordean adostu beharko litzateke.

Añade que su grupo político no tiene representación en EUDEL, por lo que no se ven en la obligación de acatar sus criterios. Opina que esta decisión se debe consensuar a través de la Junta de Portavoces.

Bestalde, EUDELe markatzen dituen irizpideetatik altuenak hartu dituztela azaldu du: alkateordeak, esaterako, alkateak baino %10 gutxiago kobratuko du, baina bazitekeen soldata %25 izatea.

Explica que, de entre los criterios de EUDEL, se ha optado por los topes máximos, ya que por ejemplo en el caso del Teniente de Alcalde, se reduce el sueldo del alcalde en un 10% cuando podría haber sido minorado hasta el 25%.

Zulaika jaunak uste du jaso beharreko soldatak bat etorri behar duela, ez biztanle kopuruarekin edo Udalaren aurrekontuarekin; baizik eta, herriaren egoerarekin ere bat etorri behar duela. Bere iritzirako, politikariek, soldatak mila euro ingurukoak diren gizarte honetan, kontuz ibili beharko lukete, herritarren eta politikarien arteko soldataren aldea ez handitzeko.

Prosigue el Sr. Zulaika, señalando que consideran que el salario a percibir debe ser coherente no sólo con el número de habitantes o el presupuesto municipal sino también con la situación del pueblo. Opina que lo mínimo que deben hacer los políticos en una sociedad mileurista es la de no agrandar la diferencia entre los sueldos de la población y los de los políticos.



PLENO
07/07/11
ACTA Nº 7

Horregatik guztiagatik, proposamena egin du, irizpide hori aldatzeko; hau da, alkatearen ordainsaria %15 jaitea eta horren arabera, alkateordearena %20 murriztea. Horrela, alkatearentzat soldata ona geratzen dela uste dugu, eta bide batez, soldata altu bati urteroko KPI aplikatzeak izango lukeen eragina murriztuko genuke. Izan ere, orain artekoak mantenduz gero, gainerako hiritarren soldatekiko aldea onartezina izango litzateke.

Alkate jaunak honako hau jakinarazi du: puntu hau, duela lau urte onartu zela aho batez.

Zulaica jaunak erantzun dio irizpideak aldatzeko jartzen direla, eta ez dagoela obligaziorik beti berdin mantentzeko.

PP alderdiko ordezkariak, Nuñez jaunak, hitza hartu du formazko arazo bat ikusten duela adierazteko; izan ere lehenengo alkateordearen soldatari buruzko gaia aztertu ondoren aztertuko da alkateordearen erabateko arduraldia ezartzeko proposamena.

Dioenez, tamalgarria da Bozeramaileen Batzordean lehenengo alkateordeari buruzko gaia aztertu ez izana, horregatik zera eskatzen du: bozketa puntuz puntu egin dadila, horrela, Bozeramaile Batzordeak onartzeko hitza eman zuenaren aldeko botua eman ahal izateko. Gainera desegokia iruditzen zaio lehenengo alkateordearena orain onartzea.

Alkate jaunak errepikatu du Bozeramaileen Batzordean ez zutela gaia

